
x

LAG

EAEko Lurralde
Antolamenduaren Gidalerroen
Berrikuspenean
Parte Hartzeko Gida

x

DOT

Guía de Participación
para la Revisión de las
Directrices de Ordenación
Territorial de la CAPV

x

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

Aurkibidea

AURKIBIDEA	2
0. SARRERA	3
Testuingurua	3
Egutegia	5
1. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAREN OINARRI KONTZEPTUALAK	6
1.1. Zer den dokumentu hau eta zein xede dituen	6
1.2. Zer da herritarren parte-hartzea? Hurbilketa kontzeptuala	6
1.3. Herritarren parte-hartzea lurralde-antolamenduan	8
1.4. Parte hartzeko aukera, erronka partekatua	9
1.5. Jokoaren arauak: xedeak, itzulerak, mugak	9
2. OINARRIZKO DOKUMENTUAREN ETA DOKUMENTU EXEKUTIBOAREN LABURPENA	12
Zeharkako alderdiak	14
Paisaia	15
Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea	16
Landa-ingurunea	17
Hiri-ingurunea	18
Mugikortasun jasangarria	20
Ura	21
Energia	21
Gobernantza: parte-hartzea, antolaketa, adierazleak	22

0. SARRERA

Testuingurua

2015eko uztailaren 27an, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen eta, orobat, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea berrikusketa hori zuzendu eta prestatzeko lana. Erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen gidalerroen berrikusketa prozesu parte-hartzaile zabal baten bidez egitea.

LAGak berrikusteko prozedurak gutxi gorabehera 3 urte iraungo du, eta administrazio izapidetzearen mugarri nagusiak (Abiatzea, Aurrerapena, Hasierako Onespina eta Behin Betiko Onespina) eta Euskal Hiria Kongresua aldi berean egingo dira (2015eko, 2016ko, 2017ko eta 2018ko azaroan, hurrenez hurren).

Bere aldetik, LAGak Berrikusteko Prozesu Parte-hartzailea Eusko Jaurlaritzak sustatutako itun publikorako mekanismoa da, EAEko lurralde-eredu berriaren oinarriak modu sozial eta parte-hartzailean zehazteko. Berrikusketa prozesuan zehar landuko da, prozesu honetarako bideak, ildoak eta guneak ezarri aurrerapenean eta hasierako zein behin betiko onespenetan. Horrenbestez, prozesu parte-hartzailea modu integratuean garatuko da berrikusketa prozedurak iraungo dituen hiru urteetan zehar.

Aurrerapenaren idazketan parte hartzeko prozesuari dagokionez, 2016ko apiril eta azaroaren bitartean garatuko da, eta Euskal Hiria 2016 Kongresuan aurkeztuko den Lurralde Antolamenduaren Gidalerro (LAG) berrien Aurrerapen dokumentua idaztea bultzatuko du.

Prozesu parte-hartzailea bi arlotan banatzen da: erakundeen parte-hartzea eta gizartearen parte-hartzea. Erakundeen parte-hartzea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren bidez landuko da. Horretarako, hainbat bilera, elkarrizketa eta topaketa egingo dira EAEko zenbait organo instituzionalekin, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearekin (EAELAB) eta EAEko Lurralde Politikarako Aholku Batzordearekin. Horretarako, ponentzia tekniko bat sortuko da organo horietako bakoitzean. Horietan, honako hauek hartzen dute parte: Eusko Jaurlaritzako sailak, hiru foru-aldundiak, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarte, Estatuko Gobernuko ordezkariak eta lurralde gaietan adituak.

Horrez gain, kide anitzeko organo aholku-emaileak kontsultatuko dira, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea, Ingurumenerako Aholku Kontseilua, Naturzaintza, Urdaibaiko Patronatua, Euskadiko Garraio Agintaritzak, Legebiltzarreko Ingurumena eta Lurralde Politika Batzordea, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (EGK), UPV/EHUko Kultur Paisaiak eta Ondarea UNESCO Katedra eta UPV/EHUko unibertsitate/gizarte zibilaren arteko elkarrizketarako ehuGune foroa.

Gizartearen parte-hartzeari dagokionez, Paisaje Transversal hiri-berrikuntza bulegoaren aholkularitza teknikoaren bidez landuko da. Horretarako, eta zehaztasunak deskribatzeko, Parte hartzeko Plan bat eta Parte hartzeko Gida hau egin dira.

Parte hartzeko Gida honek, Parte hartzeko Planarekin batera (www.euskadi.eus/lag-berrikuspena webgunean eskuragarri), EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) Berrikusteko prozesu parte-hartzailearen jarraibideak eta edukia jasotzen ditu. Hala, gizarteak parte hartzeko oinarri teorikoak definitzeko zein parte-hartzea

kokatu ahal izateko oinarrizko edukiak jasotzeko balio du. Edukiok Oinarrizko Dokumentuko erabakiak laburtzen eta gizarteak parte-hartzeko abiapuntua ezartzen dute.

Beraz, Gidaren lehenengo zatiak gizarteak parte hartzeko eduki kontzeptualenak eta zehaztasunak definituko ditu; bigarrenak, berriz, Oinarrizko Dokumentuaren edukien laburpena bilduko du, Aurrerapenerako prozesu parte-hartzailearen abiapuntu izan daitezten.

Egutegia

Jarraian, LAGen Berrikuspenean gizarteak parte hartzeko prozesuaren egutegi orokorra deskribatuko da. Goian adierazienez, prozesuak hiru urte iraungo duela aurreikusi da, izapidetze momentu bakoitzeko (Aurrerapena, Hasierako Onespena eta Behin Betiko Onespena).

Hemen, prozesu osoaren muga eta fase nagusiak jaso dira, Aurrerapenean parte hartzeko data zehatzagoak proposatuz; eta Hasierako Onespenerako eta Behin Betiko Onespenerako data nagusiak (2017an eta 2018an, hurrenez hurren) ere jaso dira.

Egutegiaren deskribapen zehatzagoa ikus daiteke, datak eta ekintza zehatzak barne, Parte hartzeko Planaren dokumentuan zein prozesuaren webgunearen egutegi atalean: <http://www.euskadi.eus/lag-berrikuspena>

Deialdiak webgunearen bidez zein Eusko Jaurlaritzako sare sozialen eta bertako komunikabideen bidez egingo dira.

2015

- 2015eko uztaila
 - Berrikusketa prozedura hastea
- 2015eko azaroa
 - Euskal Hiria 2015. Oinarrizko Dokumentua aurkeztea
 - Erakundeen parte-hartzea abiatzea

2016

- 2016ko martxoa
 - Gizarteak parte hartzeko prozesua prestatzea
- 2016ko apirila
 - Kontsultak Eragileekin
- 2016ko maiatza eta ekaina
 - Gizarteak eremu funtzionaletan parte hartzea
- 2016ko iraila
 - Gizarteak lurralde historikoetan parte hartzea
- 2016ko azaroa
 - Ondorioa
 - Euskal Hiria 2016. Aurrerapena aurkeztea

2017

- 2017ko azaroa
 - Euskal Hiria 2017. Hasierako onespena aurkeztea

2018

- 2018ko azaroa
 - Euskal Hiria 2018. Behin betiko onespena aurkeztea

1.HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAREN OINARRI KONTZEPTUALAK

1.1. Zer den dokumentu hau eta zein xede dituen

Dokumentu honen bidez, LAGen Berrikuspenean gizarteak parte hartzeko prozesuaren edukia eta oinarri kontzeptualak ezarri dira. Hala, jaso dira prozesuaren abiapuntu den jarrera teoriko orokorra, lurralde-antolamenduan eta LAGetan aplikatzeko xehetasunak, prozesuaren hasierako «jokoaren arauen» definizioa eta, batez ere, LAG berriek izan dezaketen edukiaren laburpena, haietatik guztietatik elkarrizketa sorrarazteko.


Dokumentu honen xedea Parte hartzeko Planean jaso diren gaiak osatu eta haiei eustea da. Horrela, izaera teorikoari esker, prozesuan zehar gida gisa erabili ahal izango da, sor daitezkeen galderei erantzungo die eta elkarrizketarako oinarritzko edukia proposatuko du: Oinarritzko Dokumentuaren eduki nagusiak laburtuta jaso dira.

1.2. Zer da herritarren parte-hartzea? Hurbilketa kontzeptuala

Gaur egun «herritarren parte-hartzea» terminoaren hainbat definizio daude. Izan ere, egungo zenbait praktikak eta prozesuk dituzten zentzia eta esanahia hutsaltzen dute. Hori dela eta, prozesuan zehar « herritarren parte-hartzea» aipatzen dugunean zer esan nahi dugun argitu behar da.

Horretarako, abiapuntu gisa hartu dugu Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak jasotzen duen dimentsio hirukoitza, parte-hartzea ulertzen baitu prozesu, eskubide eta betebeharrak, eta jarrera gisa:

- Herritarren parte-hartzea ikasketa eta garapen pertsonal eta kolektiboko prozesua da. Harremanak, erantzunak, ekintzak eta abar eraldatu nahi ditu pertsona orori espazioa eta ahotsa emanez, euren erantzukizuna eta eragin-ahalmena erabili dezaten balio publikoaren mesedetan.
- Pertsona orok du parte hartzeko eskubidea, eragiten dioten ekintzetan eta erabaki publikoetan parte aktibo izateko eskubidea. Horrez gain, «publikoarekiko dagoen babes maila» kontuan izanda, argi dago gaur egun parte hartzea inoiz baino beharrezkoagoa dela. Horregatik, parte hartzea herritarren betebeharra da, baina boluntarioa eta desiratua izan behar du beti.
- Jarrera gisa, parte-hartzeak autonomia, askatasuna eta erantzukizuna dakartza. Konponbidearen parte izateko interesa behar da; beraz, egon ezean, onartu beharko litzateke norbaitek parte hartu nahi ez izatea.



Azken finean, parte-hartzeak ezin die «eta ni?» galderari ez pertsona edo talde zehatzen interes partikularrei erantzun. Parte-hartzea gogoeta egiteko, eztabaidatzeko eta elkarrekin gai edo problematika zehatz batekiko etorkizun komuna sortzeko modua da, guztion artean lortzeko konponbideak, estrategiak edo ekintzak landuz.

Hori dela eta, prozesu parte-hartzaileek osatu behar dituzte dauden jakintza eta ikuspegi guztiak partekatzeko mekanismoak, guztion artean entzutea, elkarrizketan aritzea eta ikastea sustatzearen bidez, beti berdintasunean, tolerante izanda eta aniztasunarekiko errespetuz, azken hau soziala, kulturala, generokoa zein beste edozein izanda ere.

EZ DU NORANZKO BAKARREKOA IZAN BEHAR

- Ez da nik nahi dudana galdetzea
- Ez da erantzun zuzena izatea
- Ez da hondatutakoa konpontzea
- Ez da iritzia edo aholkua eskatzea, ezta iritzia ematea ere
- Ez da soilik galderei erantzutea
- Ez da beldur izatea / babestea
- Ez da "zertan da nire gaia?"

EZ DU MAKILLAJE EGINTZA BAT IZAN BEHAR

- Ez da maniobra politiko bat
- Ez da manipulazioa
- Ez da motibazio partidistekin egindako herritarren instrumentalizazioa
- Ez da kosmetika-lan bat, erakusleiho bat...
- Ez da propaganda
- Ez da klientelismoa
- Ez da populismoa

EZ DA DESOREKAK SORTZEA

- Ez da emakida bat
- Ez da inposizio bat
- Ez da botere-erlazioa
- Ez da eskuordetzea
- Ez da lehendik hartutako erabakiak justifikatzea
- Ez da inposatzea
- Ez da adostasunaren bilaketa obsesiboa
- Ez da noranzko bakarrekia

EZ DA BAT-BATEKO ZERBAIT

- Ez da araurik gabeko prozesu bat
- Ez da egintza jakin eta puntual bat
- Ez da zentzua eta ezta mugak ere argi ez dauden prozesu batean inplikatzeko
- Ez da itxaropen faltsuak sortzea

EZ DA MODA BAT

- Ez da moda bat
- Ez da marketina, ezta publizitatea ere
- Ez da iritzi-kultura
- Ez da prozesu elitista bat
- Ez da administrazioak sortutako zerbait
- Ez da ez burokrazia, ez izapideak
- Ez da inoren jabetzakoa, ezta ezein alderdi politiko-rena

EZ DA GAUZA SINPLEA

- Ez da sinplea, konplexua da
- Ez dira monosilaboak, elkarrizketa, iritzia eta kontrasteak behar ditu
- Ez da helburu bat, bitarteko bat da. Baina ez da soilik bitarteko bat: filosofia bat da
- Ez da gonbidapen abstraktu bat
- Ez da helburu bat, helburu horretara iristen garen modua da

1.3. Herritarren parte-hartzea lurralde-antolamenduan

Gizartearen parte-hartzeak, lurralde-antolamenduari eta lurralde-plangintzari dagokienean, honen berezko bi alderdirekin zerikusia duten zenbait berezitasun aurkezten ditu: heldu behar diren gaien eskala eta abstrakzio-maila. LAGen kasuan, dokumentuaren izaera beragatik nabarmentzen da egoera, estrategikoa eta etorkizunari begira egin baita.

Horrenbestez, parte-hartzea EAEko lurralde osoari eragiten dioten gaiekin lotuta egongo da beti; horrek argi uzten du interes partikularrak alde batera utzi eta eztabaida ikuspegi globalerantz bideratu beharra. Honek ez du esan nahi ezin dela ekarpenik egin lurraldeko ikuspuntu edo esperientzia partikularretatik abiatuta, ezta prozesuak ez diela gai edo errealitate espezifikoerantz erantzuten ere. Alabaina, ondoren interpretatu eta inplementatu beharko dira LAGei dagokien eremu zabalagoan.

Halaber, parte-hartzea gai orokorren inguruan antolatzen denez, pedagogia- eta sentsibilizazio-alderdietan sakontzea exijitzen du; beraz, nabarmendu beharko dira osagai dibulgetzailea zein mezuak herritarrek erraz ulertuko dituzten hizkuntza eta kodeetara itzuli eta igortzeko mekanismoak.

Prozesuaren eskala dela eta (EAE osoa), parte hartzeko hainbat ildo eta gune aktibatu beharko dira, parte-hartzearen ordena kuantitatiboa zein kualitatiboa uztartzea ahalbidetuko dutenak. Hala, maila honetako prozesuetan, beharrezkoa da EAEko ahalik eta herritar gehienek parte-hartzea ahalbidetuko duten ildoak eta espazioak ezartzea. Beraz, plataforma eta tresna digitalak erabili behar dira, hala nola lurraldean dagoeneko existitzen diren parte-hartze espazio fisikoak erabiltzea (instituzionalak edo ez, ahal denean), arduradunekin koordinatuz.

Parte-hartzearen ordena kualitatiboari dagokionean, ikuspegi estrategikoagoak eta globalagoak ateratzera bideratuta dago. Horrenbestez, jorratuko diren gaien inguruko iritzi garatua duten eragileen parte-hartzeari zuzendutako espazioak izango dira, lurraldeari buruzko gogoeta azaldu ondoren.

1.4. Parte hartzeko aukera, erronka partekatua

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozesu parte-hartzailea gertaera garrantzitsua da EAEko lurralde-antolamenduaren barnean. Prozesu aitzindaria da, hala eskalagatik (autonomia-erkidego oso bat hartzen du barne) nola parte-hartzearen aldeko apustu sendoagatik, lurralde-gobernantza eta kultura berria sustatzeko funtsezko osagai gisa.

Horregatik, EAEko biztanleek lurraldearen etorkizunarekin lotutako aukera dute aurrean. Prozesuaren ezaugarriak direla eta, aukera hau erronka partekatu eta erakargarria da EAEko herritar guztientzat, motibazio eta konpromiso handiak eskatzen baititu. Prozesu aitzindaria izateagatik, parte-hartze, gogoeta eta eztabaidarako modu berriak ezarriko ditu, EAEko lurralde-kultura eta herritarren heldutasun politikoa aberastu eta osatzeko. EAEko herritarren artean erantzun zabala sortzea espero dugu, prozesuak eskaintzen dituen hainbat erakargarritasun eta parte hartzeko moduak direla eta.

1.5. Jokoaren arauak: xedeak, itzulerak, mugak

Prozesu orok ditu irismena eta garapena zehazteko «jokoaren arauak». Baldintza hauek eztabaida kokatzen laguntzen dute. Xede, eremu eta itzuleren bidez definituko ditugu hemen.

Xede orokorra

- Lurralde-estrategia berriaren oinarriak ezartzea parte hartzen duten pertsona eta eragile guztien artean.

Xede espezifikoak

- Parte-hartzearen oinarriak ezartzea, LAGak idaztean gizarteak parte hartzeko prozesu osorako izateko baliagarriak. Prozesua Aurrerapenarekin batera hasiko da, eta beste bi urte iraungo du, Hasierako Onespena eta Behin Betiko Onespena direla medio (azken hau 2018ko azaroan izatea espero da).

- Guztion artean gogoeta egin, eztabaidatu eta eraiki EAEko lurralde-estrategiaren etorkizunerako erreferentzia-esparru berriaren oinarriak.
- Herritarrak sentsibilizatzea LAGekin lotutako gai desberdinetan, beharrezkoak diren ikasketa kolektiboko espazio eta ildoak ezarriz.
- 2016ko apirilaren eta azaroaren artean garatuko den LAGen Aurrerapenarekin lotutako parte hartzeko prozesuaren jokoaren edukiak eta arauak zehaztea.

Esparrua

Esparruak parte hartzeko prozesuaren ezaugarriak definituko dituzten baldintzak ezartzen ditu. Zenbait gaitan sailkatzen dira:

- Denborazkoak:
 - LAGak berrikusteak gutxi gorabehera hiru urte iraungo du, eta prozesu honekin lotutako Aurrerapena idaztearekin batera hasi da.
 - Prozesu hau Aurrerapena idaztera bideratuta dago, eta 2016ko apiril eta azaroaren artean garatuko da. Prozesu honetatik abiatuta, Hasierako Onespenari eta Behin Betiko Onespenari dagozkien parte hartzeko ildoak ezarriko dira.
- Edukiak:
 - Garatuko den prozesu parte-hartzailea LAGak berrikustearen Aurrerapenari dagokio. Ekarpene guztiak txosten batean bilduko dira, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko zerbitzu teknikoek bidaliko zaie Aurrerapena idatzi dezaten.
 - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Oinarrizko Dokumentu bat idatzi zuen, hainbat eduki jasoz, prozesuaren abiapuntutzat erabil zedin.
 - Prozesuaren hasierako gaiak eta edukiak hurrengo atalean jaso dira, Oinarrizko Dokumentuaren edukiak laburtuz.
 - Edozein gai eztabaidagarria bada ere, batzuk LAGetatik haratago doaz. EAEko Administrazioaren eskumenek, EAEko lurraldearen inbariante fisikoek eta horren errealitate sozioekonomikoak ezarriko dituzte mugak.
 - Aldez aurretik existitzen diren baldintzak eta berezitasunak daude, baita lurralde-antolamenduaren inguruko ia 20 urteko jarduera ere. Hau guztia ezin da alde atera utzi. Ildo horretatik, prozesua ez da hutsetik hasi.

Itzulerak

Parte hartzeko prozesu baten itzulerek erreferentzia egiten diote prozesuaren ondoren espero diren lorpenei zein entregagaiei eta sortuko diren produktuei.

- Prozesuaren ondorioz sortutako hainbat erabaki lortu eta laburtuko dira, LAGak berrikusteko Aurrerapen dokumentua idazteko oinarri gisa erabiltzeko.
- Prozesuan zehar sortuko diren dokumentuak (aktak, txostenak, eta abar) Parte hartzeko Planean jaso dira. Dokumentu hauek guztiak publikoak izango dira eta eskuragarri egongo dira formatu digitalean LAGak Berrikusteko webgunearen bidez.
- Prozesuaren inguruko komunitatea sortzea: prozesuan parte hartzen duten gainerako pertsonak ezagutzea eta harremanak sortzea.
- Lurraldeari buruz ikasi eta gogoeta egitea: eztabaidatzeko aukera lurralde gaietan adituak diren edo interesa duten pertsonen eskutik.
- EAEko lurralde-kultura zabaltzea eta lurraldearen gobernantza berriaren oinarriak ezartzea.

2. OINARRIZKO DOKUMENTUAREN ETA DOKUMENTU EXEKUTIBOAREN LABURPENA

LAGen berrikuspenean parte hartzeko Prozesu honen abiapuntu gisa, Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Lurralde Plangintza Sailburuordetzako zerbitzu teknikoek idatzi dute **Oinarrizko Dokumentua**, LAG berrien eduki proposamenen dokumentu teknikoa, alegia. Horren xedea, beraz, parte hartzen eta iritzia ematen hasteko edukiak ematea da.

Dokumentua eskuragarriagoa izan dadin, ikuspegi teknikitik oraindik, **Dokumentu Exekutibo** izeneko bertsio laburtua egin da. Horrez gain, parte-hartzea errazteko asmoz, are **Laburpen** motzagoa sortu da.

Beraz, Oinarrizko Dokumentua, Dokumentu Exekutiboa eta Laburpen hau LAGak Berrikusteko hasierako hiru dokumentuak dira, bakoitza aurrekoa baino laburbilduagoa.

Edukiak gaika eta azpigaika sailkatu dira aurkibidearen arabera:

- **Zeharkako alderdiak**
 - Genero-ikuspegia
 - Klima-aldaketa
 - Osasuna
 - Euskara
 - Lurralde-erlazioa
- **Paisaia**
- **Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea**
 - Ingurune fisikoaren antolamendua
 - Azpiegitura berdea
- **Landa-ingurunea**
- **Hiri-ingurunea**
 - Hiri-birgaitzea eta berroneratzea
 - Lurraldearen jasangarritasuna jarduera ekonomikoen erabileran
 - Hiri-hazkundearen perimetroa
 - Metropolialdeak eta eraldaketa ardatzak
 - Bizitegi-kuantifikazioa
 - Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
 - Plangintzen bateragarritasuna
- **Mugikortasun jasangarria**

- Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
- Bide-mugikortasuna
- Trenbide-, portu-, eta aireportu-mugikortasuna
- Mugikortasun kolektibo multimodala
- Eredu logistikoa
- Ura
- Energia
- **Gobernantza: parte-hartzea, antolaketa, adierazleak**
 - Parte-hartzea
 - Gobernantza
 - Lurralde- eta hirigintza-adierazleak

Zeharkako alderdiak

Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegia lurralde-eragina duten arloetan sartzeko da asmoa. Besteak beste, honako hauetan:

- Garraioa eta mugikortasuna.
- Ekipamenduak eta irisgarritasuna.
- Merkataritzaguneak eta merkataritza-ekipamenduak.
- Etxebizitza
- Landa-ingurunea.
- Segurtasuna.
- Partaidetza.
- Udal-plangintzatik heldu beharreko beste zenbait gai.
- Auzoek erabilera bat baino gehiago izatea, bizitza sortzen duten ekipamenduak eta dendak edukitzea, segurtasun handiagoa eta bizi-kalitate hobea izatea, topaguneak egotea eta espazio publikoak eta pribatuak bereizita ez egotea, pertsona guztien autonomia sustatzea, eta egoera ahulenean dauden taldeen beharrei erantzutea: hori guztia lortzeko neurriak sustatu behar dira.
- Hirietako espazio publikoetan segurtasuna funtsezko eskubide moduan txertatzea. Hirigintza-plangintza berrikusteko prozesuetan, herritarren parte-hartzearen laguntzaz, “gune arriskutsuak” hautemango dira, plangintza berriak konponbidea eman diezaien.

Klima-aldaketa

1. Lurraldearen efizientzia eta erresilientzia handitzea.
2. Karbono gutxi erabiltzen duen energia-eredua sustatzea.
3. Mugikortasun jasangarria bultzatzea.
4. Natura-ingurunearen erresilientzia handitzea.
5. Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea.
6. Ur-hornidura bermatzea eta eraikitako ingurunearen eta azpiegitura kritikoen (energia, ura, elikadura, osasuna eta ICTak) erresilientzia handitzea muturreko egoerakiko.
7. Hondakinen sorrera gutxitzea eta kontsumo jasangarriagoa sustatzea.
8. Plangintza-dokumentuek lurralde-jasangarritasunaren balioetan sentsibilizazioa gizartea.

Osasuna

1. Lurraldeak osasunean dituen inpaktuen azterketa sistematikoa bultzatu eta laguntzea.
2. Ekitatearen alde egitea; hots biztanle orok, haren generoa, adina, etnia, estatus sozioekonomikoa eta dibertsitate funtzionala edozein izanda ere, aukera berdinak izatea komunitatearen zerbitzu guztiak eskuratu, lortu eta erabili ahal izateko. Horretarako, desberdintasunak plangintza-prozesuaren hasieratik aztertuko dira.
3. Herritarren parte-hartzea sustatzea lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan, gardentasuna, demokrazia eta berdintasuna printzipioetan oinarrituta.

Euskara

1. Euskarak lurraldean duen presentzia kontuan izatea lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresnak egin eta garatzean, hizkuntza-politikari eta koofizialtasunari laguntzeko tresna moduan.
2. Egokiak diren neurriak sustatzea euskararen erabilera normalizatua egiteko, pertsonen arteko ohiko erabilerako hizkuntza izan dadin administrazioan, gizarte-zerbitzuetan (osasunean eta hezkuntzan, esaterako), merkataritza- eta enpresa-arloan eta aisiako espazioetan.

Lurralde-erlazioa

1. EAEk Europako errotula moduan duen ahalmena garatzea.
2. Euskadiren eta Akitaniaren arteko harremana garatzea, euroeskualdearen baitan.
3. Lankidetzeta eta lurralde-erlazioa handitzea Nafarroarekin, bereziki, eta Errioxarekin, Kantabriarekin eta Gaztela eta Leonekin.
4. Barneko lurralde-erlazioa handitzea.

Paisaia

1. Lurralde- eta hirigintza-plangintzako bitartekoak landu eta garatzeko prozesuetan paisaia txertatzea.
2. Paisaia ikuspegi integraletik begiratuta balioestea, landa- eta hiri-paisaiak aintzat hartuta, baita kalitate handikoak nahiz narriatuak ere.
3. Paisaia balioesteko prozesuan herritarren parte-hartzea sustatzea, norberaren pertzepzioari dagokion gaia baita eta pertsonen bizi-kalitaterako eta osasunerako garrantzi handia baitu.
4. Paisaia-inpaktuak saihestea eta lurraldean garatzen diren elementu eta jarduerak bisualki integratzea, batik bat azpiegiturak eta jarduera ekonomikoko eremuak.

5. Paisaiari balioa ematea, kalitatezko faktore den aldetik, gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta ongizatearen ikuspegitik begiratuta.

Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendua

1. Espazio bakoitzerako lurralde-xede bat zehaztea, erabilera egokienak arautzeko.
2. Lurraldearen erabilera jasangarria bermatzea, datozen belaunaldiek ere baliabideak eskuragarri izateko eta desberdintasunak desagerrarazten laguntzeko.
3. Erabileren eta sortutako inpaktuen konplexutasunari jarraipena egitea, metodologia homogeneousak erabiliz.

Azpiegitura berdea

Azpiegitura berde integratua eta ekosistemen zerbitzuak

1. EAEn azpiegitura berde planifikatua egitea, lurraldearen lotura ekologikoa bermatzeko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta giza asentamenduek eta azpiegitura “grisek” sortutako lurralde-zatiketa onorioak arintzeko.
2. EAEko natura-ondareari eutsi eta hura aberastea eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
3. Ekosistema-zerbitzuen benetako balioa agerian jartzea, hazkunde zuhur, jasangarri eta integratzaile baten baitan.
4. Ekosistemek EAEn ematen dituzten zerbitzuen galera murriztea eta zerbitzuak sustatzea, eta, bereziki, honako hauek:
 - a. Biodibertsitatea: biodibertsitatearen galera geldiaraztea.
 - b. Arautzea: lurralde erresilientea eratzen laguntzea.
 - c. Nekazaritza eta abeltzaintza: nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako espazioak aurkitzea.
 - d. Osasuna eta ongizatea: berdeguneak orekatzea biztanledun inguruneetan eta bizimodu osasungarriak sustatzea.
 - e. Elikadura: elikadura-ziklo laburrak eta elikadura-ohitura osasungarriak sustatzea.
 - f. Ekonomia: azpiegitura berdeari eta haren helburuei lotutako lanpostuak sortzea.
 - g. Mugikortasuna: ibilbide bigunak proposatzea, eta bizikletaren erabilera eta oinez ibiltzea sustatzea.
 - h. Turismoa: azpiegitura berdearen inguruan zirkuituak, ibilbideak, turismo-packak eta abar sortzea.

- i. Kultura: ondasunetatik harago, “testuinguruak” edo “ezaugarriak” babestea.
- j. Paisaia: paisaia-elementu bereziak babestea eta hondatutako inguruneak berreskura daitezen laguntzea.
- k. Lurralde-antolamendua: lurraren erabileraren ikuspegi integratuagoa, eta azpiegitura “grisek” eragiten duten lurralde-zatiketa arintzea.
- l. Partaidetza: partaidetzazko topagune bat sortzea.

Naturagune babestuak

1. Ingurumenaren aldetik EAEn garrantzitsuenak diren espazioek ematen dituzten zerbitzuak finkatzea.
2. Espazio babestu bakoitza ingurumen-babeseko figura bakarrean sartzeko lana amaitzea.
3. Naturagune babestuen EAEko sarea eremu funtzionaleko eta tokiko eremuko garrantziko naturaguneetan txertatzea, azpiegitura berde integratu batean (bai EAEn integratua, bai eta mugakide dituen eskualdeetan integratua).

Korridore ekologikoak

1. EAEn zatiketa ekologikoa eragozte eta biodibertsitatearen galerari aurre egitea.
2. Korridore ekologikoen sarea eskualdeko azpiegitura berdean txertatzea.

Landa-ingurunea

1. Landa-nukleoen izaera eta irudia zaintzea, lurraldearen funtsezko elementuak dira eta.
2. Ezagutzaren transferentzia eta berrikuntza sustatzea nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan, eta ahalegin berezia egitea jakintza-multzoaren garapena, berrikuntza eta lankidetzak sustatzeko.
3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera eta arrantza-jarduera sustatzea, oinarrizkoak baitira elikagaiak hornitzeko eta lurralde baten elikagai- subiranotasunerako, hark biztanleei bizi-kalitate egokia eta osasuntsua eman diezaien.
4. Landa-lurzorua babestea, ingurune fisikoa kudeatzeko tresna gisa, nukleo txikien egitura eta haien paisaia-eremuak kontserbatu eta sustatzeko.
5. Nekazaritza-ustiategien bideragarritasuna eta lehiakortasuna sustatzea, eta pertsona gazte eta prestatuek lana lor dezaten erraztea.
6. Nekazaritzarekin eta basogintzarekin lotutako ekosistemak leheneratu, babestu eta hobetzea, biodibertsitatea, natura-balio handiko nekazaritza-sistemak eta paisaia leheneratuz, babestuz eta hobetuz.
7. Baliabideen efizientzia sustatzea, bai eta karbono gutxiko eta klima-aldaketara egokitzeko gai den ekonomia sustatzea ere, nekazaritza-, elikadura- eta basogintza-sektoreetan. Ura eta energia efizientzia handiagoz erabil dadin

ahaleginduko da. Horretarako, energia-iturri berriztagarriak erabiltzea erraztu eta bioekonomia gara dadin sustatuko da.

8. Landa-eremuetan gizarteratzea sustatzea, pobrezia murriztea eta garapen ekonomikoa sustatzea, dibertsifikazioa erraztuz, enpresa txikiak sortzea eta garatzea eta enplegua sustatzea erraztuz, landa-eremuetan tokiko garapena sustatuz, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien eskuragarritasuna eta erabilera eta kalitatea hobetuz.

Hiri-ingurunea

Hiri-birgaitzea eta Berroneratzea

1. Hiri-berroneratzea eta urbanizatutako espazioaren aprobetxamendu onena sustatzea.
2. Hiri adimentsuak sustatzea, garapen teknologikoaren euskarri izan daitezen, zerbitzu eta komunikazioen prestazio aurreratua eskaintzen dutela, eta jasangarritasunaren eredu izango direla.
3. Udalerrietan mugikortasuna eta garraio jasangarria sustatzea.
4. Bizikidetzarako, gizarteratzeko, merkataritzako eta kulturako jardueretarako eta hirigintzako, arkitekturako eta kultura-arloko ondareaz gozatzeko espazio publikoak sustatzea.
5. Birgaitzea eta irisgarritasuna, bizigarritasuna, energia-eraginkortasuna eta kalitate-baldintzak sustatzea etxebizitzetan, eraikinetan oro har, eta hiri-ingurunean.

Lurraldearen Jasangarritasuna Jarduera Ekonomikoen Erabileran

1. Lehendik dagoen lurzoru industrialari balioa ematea, hutsik dauden industria-pabilioiak birgaitu eta berrerabiltzea, eta lankidetzara publiko-pribatuko estrategiak diseinatzea lurzoru industrialen urbanizazioaren kontserbazioa sustatzearen.
2. Lurzoru industrialak dentsifikatzea eta erabilera mistoak sustatzea, jarduera ekonomikoak eta hiri-bizimodua uztartzearen; horrekin batera, lurzoru industrialen dentsifikazioaren alde ere egitea.
3. Goi-mailako teknologiek eta hiri-berrikuntzako eta -berroneratzeko eragiketekin lotutako espazio berriak lotzea, landa-ingurunean sakabanatuta gera daitezen saihesteko, eta jarduera berritzaileen parkeak sortzea, kanpoko konektibitate-nodoekin edo unibertsitate-zentroekin lotuta.
4. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien bereizgarritzat hartuta, hiri-paisaia eta paisaia naturala uztar daitezen defendatzea, garraio publikoaren bidezko konektibitate handia eskaintzea eta mugikortasun-sistema jasangarriak txertatzea.
5. Gure herritarren hiri-bizimodua sustatzea, hiriko merkataritza eta aldirietako merkataritza orekatuta.

Hiri-hazkundearen Perimetroa (HHP)

1. Hiri-hazkundeari mugak jartzea Eremu Funtzionalaren Hiri-hazkundearen Perimetroa (HHP) ezarrita, Lurralde-plan Partzialaren indarraldirako aurreikusitako edo lehendik dagoen hiri-orbana hartu behar duen lurralde-eskalaren zehaztapentzat hartuta.

2. Hiri-hazkundearen Perimetraoa epe ertaineko zehaztapentzat finkatzea, hiri-berrikuntzako eta dentsifikazioko estrategietan eragitearren.
3. Hiri-hazkundearen Perimetraoa udal-plangintzan zehaztu eta mugatzea.

Metropolialdeak eta Eraldaketa Ardatzak

1. Eraldaketa Ardatzen bitartez hiri-garapeneko prozesuak egituratzea, betiere egitura linealtzat hartuta, garraio kolektiboaren erabilera ahalbidetzearen, lehendik eraikitako espazioak dentsifikatuta eta eremu berrietan hiri-okupazioa saihestuta.
2. Hirigintza lausoa mugatzea, ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzea, eta dentsitatea, hiri-berrikuntza eta berrikuntza-espazioak sortzeko aukera ahalbidetzea lurralde-elementuen arteko antolaketa ahalbidetuko duten Eraldaketa Ardatzen bitartez.
3. Eraldaketa Ardatz horien bitartez hiri-garapenerako egitura jasangarriak eratzea, lurraldearen konpartimentazioa saihestuta eta gure jarduera ekonomikoen dinamizazioko eta berrikuntzako prozesuetarako lurralde-euskarri egokia eskainita.
4. Hiri-intentsitate geroz eta handiagoko espazioak sortzeko aukera ematea, dela bizitegi-dentsitateari dagokionez, dela zerbitzu, erabilera eta jardueren dentsitateari dagokionez.

Bizitegi-kuantifikazioa

1. Lurzoruaren artifizializazioa mugatzea bizitegi-erabilerarako baldin bada, zentzuz erabiltzeko eta jasangarritasuneko irizpideei jarraikiz.
2. Hirigintza-plangintza berrikustean bizitegi-ahalmena eta bizitegi-premiak kalkulatzeko aukera ematea udalerriei.

Bigarren Etxebizitza eta Baliabide Turistikoak

1. Bigarren etxebizitzaren garrantzia eta ezaugarriak balioestea lurralde-plangintza partzialean eta udal-plangintzan.
2. Turismoaren sektorea antolatzeko lurralde-plangintza orokorra egitea lurralde-plan sektorial baten bitartez, baliabide turistikoak lurralde-jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta baliatuko direla bermatzearen.

Plangintzen Bateragarritasuna

1. Mugakide diren udalerrietako udalaz gaindiko erronkei erantzun egokia ematea.
2. Herritarrek eremu mugakide horiek aukera-eremutzat har ditzaten sustatzea, pertzepzio positiboa izan dezaten.

Mugikortasun jasangarria

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

1. EAEko lurraldea egituratzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako azpiegituren EAEko sarea eratuz, hiriarteko eta eskualdearteko motorrik gabeko mugikortasuna garatzeko. Horrekin, barne-ibilbideak eta mugakide diren eskualdeekiko loturak finkatuko dira.
2. EAEko zatian, Donejakue bidea finkatzea, lurraldea egituratzeko duen ahalmenagatik; eta, orobat, EAE zeharkatzen duten Inaziotar bidea, Itsasibilbidea (eta haren jarraipena Frantziatik eta Kantabriatik), Ardo eta Arrain bidea, eta Bidezidor historikoa sustatzea.
3. Bizikletaren erabilera garraibide publiko moduan sustatzea, egunero erabil daitezen laguntzea eta garraio moduen gaur egungo banaketan eragitea, sare seguru, eroso eta konektatu bat oinarri hartuta.
4. Irizpideak zehaztea bizikleta-sareak udal-plangintzekin bat igaro ditzan udalerriak.

Bide-mugikortasuna

1. Mugikortasun jasangarriko testuinguru integratu baten baitan, garraibide bakoitzari dagokion eginkizun espezifikoa zehaztea eta, bereziki, bide-sistemari dagokiona.
2. EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dagoela jotzea, foru-aldundien lurralde-plan partzialetan edo lurralde-plan sektorialetan garatu beharreko proposamen zehatz batzuk gorabehera. Dena dela, bide-azpiegitura Europan zeharreko azpiegitura denez, mota horretako azpiegiturei dagokien kudeaketa izan beharko du.
3. Aurrekontu-aurreikuspenetan, lehentasuna ematea egun dauden azpiegituren mantentze-lanei azpiegitura berriak egitearen aurrean.
4. Salgaien distantzia luzeetarako errepide bidezko garraioaren egoera gero eta jasanezinagoa denez, horri erantzun integratua ematea.

Trenbide-, portu-, eta aireportu-mugikortasuna

1. Abiadura handiko trenbide bidezko Europa barneko sarea sustatzea.
2. Trenbide-mugikortasunak sistema global integratu batean, mugikortasun jasangarrian eta EAErena bezalako dentsitate handiko hiri-egitura batean duen eginkizun nagusia finkatzea.
3. EAEko portu-sistema eta itsasoko salgaien garraioa sendotzea.
4. EAEko Aireportu Sistema sustatu eta haren ahalmenak optimizatzea.

Mugikortasun kolektibo multimodala

1. Garraio publikoaren erabilera sustatzea.

2. Garraio publikoaren bidez irisgarritasun integrala erraztea.
3. Berotegi-efektuko gasen emisioa murrizten laguntzea, garraio bide publiko garbiak erabiliz.

Eredu logistikoa

1. EAE salgaien nazioarteko garraiorako nodo logistikoa bihurtzeko erronkari aurre egitea, eta plataforma logistikoen sare bat osatzea.
2. Jundiz-Foronda, Arasur eta Lezo-Gaintxurizketa plataforma logistikoei Europar Batasunaren garraio-sarean duten kokapen estrategikoa agerian jartzea, multimodalitaterako aukera handiak eskaintzen dituzte eta.
3. Eginda dauden eta eskura dauden azpiegitura logistikoa optimizatzea.

Ura

1. Ibaien eta erreken Lurraldearen Arloko Plana aplikatzea ibaien eta erreken ertzetan egitea aurreikusten den bizitegi-lurzoru edo ekonomia-jarduera berrien antolamenduan.
2. Egungo hiri berritzeko lanarekin jarraitzea, izan badiren arazo hidraulikoak konpontzearekin batera.
3. Egungo hiri iragazkorra izan dadin sustatzea.
4. Lurralde-maila egokian zehaztea uraren, ur-horniduraren eta ur-arazketaren ziklo osoa, eta isurialdeetako eta arroetako baliabide hidrikoak elkarri lotuta kudea daitezen sustatzea.
5. Uraren hiri-eskaera murriztea, bai per capita eskaera, bai eta eskaera orokorra ere.
6. Hirigintza-aurreikuspenak egiterakoan, kontuan izatea baden horretarako nahikoa ur.
7. Arazutako hondakin-uren berrerabilera handitzea.

Energia

1. Energia-betekizunak eta energia-instalazioak lurralde- eta hiri-plangintzan txertatzea, politika publikoan jasangarritasunerako jarraibideak barneratuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko energia-jasangarritasunari buruzko irailaren 22ko 178/2005 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
2. Hiriak berotegi efektuko gasen zero emisiorako helburuetara bideratzea, alde batetik, energia-eraginkortasuna eta -efizientzia nabarmenki areagotuz (desenergizazioa) eta, beste alde batetik, energia berriztagarriko iturrien erabilera orokortu eta autokontsumoa (deskarbonizazioa) sustatuz.
3. Hiri-estrategietan nahiz etxebizitza eta mugikortasunarekin lotutako estrategietan energia-efizientzia areagotzea.
4. Kontsumo ia nulua eraikitzeke irtenbideetarako aurrerapausoak ematea.
5. Garraio publikoaren erabilera sustatzea, garraio kolektibo eraginkor eta garbien bidez.

Gobernantza: parte-hartzea, antolaketa, adierazleak

Parte-hartzea

1. Partaidetza lurralde-antolamendurako politikaren osagai natural bilakatzeko formulak eta tresnak zehaztu
2. Tradizionalki, administrazio-iizapidean partaidetza administrazioei entzunaldia eta informazio publikoa emateko faseetara mugatu da. Haatik, partaidetza mugatu hori gainditu egin nahi da, politikaren kudeaketara bertara hedatuz.
3. EAELABaren koordinazio-funtzioa sendotzeko xedez, hura osatzen duten herri administrazioen aldetiko partaidetza aktiboagoa proposatzen da
4. Lurralde Politikarako Aholku Batzordeak bere aholkularitzako funtzioak modu aktiboan bete ditzala planteatzen da
5. Instituzioz aparteko bilkurak lurralde-maila ezberdinetan planteatzen da, nagusiki, Lurralde Historikoetan edo eremu funtzionaletan.
6. Arlo telematikoa partaidetza sustatzeko egokitzat jotzen diren trenen baitakoa izango da.

Gobernantza

1. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikustean, haren kudeaketa ere berrikusi egin behar da. Hogeigarren hamarkadaz geroztik "plangintzarako bloke" izendatu dena osatu da pixkanaka, LAGekin, LPPekin eta LPSekin osatzen dena. Gainera, orduetik esperientzia metatu da eta esperientzia horretatik abiatuta hainbat proposamen egin daitezke gobernantzari dagokionez, esate baterako, araudiaren ebaluazio, zehaztasun eta sinplifikazioari buruz, LPP eta LPSetarako eduki eta elementu grafikoaren homogeneotasunari buruz, abiatu gabeko LPSen aukerak balioesteari buruz, eta lurralde-antolamendurako tresnen izapideak denboran murrizteari buruz.
2. LPPetako eta LPSetako zehaztapenak eraginkortasunez ebaluatzeko moduari buruzko lanketa egitea proposatzen da, modu homogeneo eta sinplean egite aldera, haien garapena balioesteko eta egokitzat jotzen diren neurriak hartzeko baliagarri izan dadin. Horretarako, adierazle jakin batzuk finkatu beharko liriateke, ebaluazio hori behar bezala egitea ahalbidetzekoak.
3. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, LPPen eta LPSen artean eztabaida sustatu, eta baita bakoitzaren barnean ere, eremu funtzional mugakideetako LPPetan arreta berezia jarri.

Lurralde- eta hirigintza-adierazleak

Honako lurralde- eta hirigintza-adierazle hauek proposatzen dira lurralde- eta hirigintza-antolamenduko plangintza neurtzeko eta haren jarraipena egiteko:

A. Egungo hiri-egituraren eta lurralde-egituraren egoeraren adierazleak. Lurzoruaren kalifikazioak eta lurralde-dentsitateak ongi adierazten dute egungo lurralde-eta hirigintza-eredua.

A1.- LURRALDE-EREDUA. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

A2.- LURRALDE-DENTSITATEA

B. Gaur egungo garapenaren eta aurreikusitako garapenaren inpaktu-adierazleak. Plangintza orokorrean adierazitako etxebizitza-aurreikuspenek hiri- eta lurralde-errealitatean duten inpaktua adierazten dute: hiri-eredua, bizitegi-garapena eta etxebizitza-dentsitatea.

B1.- HIRI-EREDUA

B2.- BIZITEGI-GARAPENA.

B3.- ETXEBIZITZA-DENTSITATEA.

C. Artifizialtze-adierazleak. Hiri-orbanak azken urteetan izandako bilakaera adierazten dute eta, zehazki, lurzorua hirigintza-kalifikazioaren bilakaera.

C1.- HIRIGINTZA-KALIFIKAZIOAREN BILAKAERA.